

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mungia



Aurkibidea

Udalerria: Mungia

Sarrera



Bizkaiko barrualdeko herri hau Mungialdea eskualdeko hiriburua da. Iparraldean Bakio eta Bermeorekin egiten du muga; hegoaldean, Derio, Zamudio eta Gamiz-Fikarekin; ekialdean, Meñaka eta Gamiz-Fikarekin; eta, mendebaldean, Loiu, Gatika eta Jataberekin. Auzo hauek osatzen dute herria: Atxuri, Belako, Billela, Emerando, Iturbaltzaga, Larrabizker, Larrauri, Laukariz, Markaida eta Trobika. Mungiako biztanleriak etengabeko hazkundera izan du, 80ko hamarkadaren hasierako geldiune laburra izan ezik. Hazkunde hori azken urteotan bizkortu egin da. Berezko hizkera mendebaldeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 16.209
- **Euskaldunak:** %55,92

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **23**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- Tximintx euskara elkarte

Hizlariak

Felix Aginaga (1891)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Albaitaria zen eta 22 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.218 eta 2.219

Josu Endemaño Garai (1912-2015)



Laukarizen jaio zen 1912. urteko Gabon Zahar egunean. Aita Gamizekoa zuen eta ama Atxuri auzokoa. Gerran Gorbeian egon zen. Txikitan soroan laguntzen zuen eta gaztetan lantegi batean lanean hasi zen. Lantegietan ibili zen jubilatuta arte. Lekeitiar batekin ezkondu zen. Bi seme-alaba izan zituen. Loian bizi izan zen azken urteetan.



Juan Luis Goikoetxea (1947)

Jose Uriarte Erkoreka (1895)

Ildefonso Zarraga

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Albaitari lanetan

- **Hizlaria(k):** Aginaga, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** MUG-002/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserrinari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Felix albaitaria zen eta bere lanean bizitako istorio bat kontatzen du. Gaixo zegoen behi bat sendatzera joan zen zaldiz eta bidean bi autorekin egin zuten topo.

Transkripzioa

- Non egon as atzo, Jose?
- Ser ba?
- Neu zure bille ta zu iñondik ez agertu.
- Ixilik on adi, onitzen etzeko ateatan adi Bermeoko eta Bakioko kotxeak, pasetan dauasela goixeko trenera. Onetan nauela etor sen mutil bet eta esaosten: "Ze, emen bis i dok idi-medikue?". "Bai, ser gurosu ba?". "Ba ... beie dekoala makalin esandostea Goiko-etzekoak". "Ze partetara jausten da etze ori?". "Markaide aldera". "Eztaitx non itxen dan etze ori". "Esan dostea, se, len egon sinela alboko etzean idi bet on sala korrontziegas eta a ekusten ixen siñela". "Bueno, joango nas". Apareja saldie eta urtetan dot baya saldi barrabasa ikerorra eta automobillekas eta motorrakas ibil bear kontus. Banoa kamiño eskinetik eta onetan badator bat zentellotzian, ekusten deu saldiek, asten da puske saltuke eskine baterik bestera, aiñ txarto ikusi ostenian lotu sen automobil ori, nik artu nuen sustue eta gatxan gatxagas itxo in biar barreka; se lau edo bost aldeanu asi siren ene bada, ene bada gedarres, eta galdue da gison ori, baya barrabasak es mobidu euren lekutik, gero pasa san ori, koixu estratzea ta ioan nitxen aurrera, baya lupetzakas esin ibilli, orduen artu bueltea ta etorri nitxen kaminora, albora eta gero allega nitxenian etze ondora ortik joan nitxen edo ioan [bernendun].

Solorik solo bittarte, allega nitxenean etze orretara posik egonitxen gixona egoan portalean eta esan nontzen: "Se, ia bei ori ekus deigun" Atara osten beye eta bakik se tipo ekarren? Kamello antzera, burue altu eta serure adi dauela, gixon ori larri egoan frakatan se esan otxenian "onek kolperen bat artu deu", kontestau osten "bai neu isenaz baya esisu esan neure andreari, se ostantzian galdue nas eta gure deu jakin selan ixen dan?" Ba etor nitxen bart esnea eratzitxen eta ostikeda bategas apurtu osten jarrea, orduen neure jenio txarragas apara neuken leku guztietan, ta gero kantza nitxenian ontxe dauen moduen lotu sen beye, gero olan nauela etor jaten beste gixon bat esaten se koxurik deukela beie eta saiegas, gatzagas eta biñagreaqas iqortziotzela baia estala osatu; orduen aginddu notxen botike bat eta ioan suan konforme; gero onantza natorrala etor sen beste mutil bet eta esaosten ametzorrigas eon san beie osatu sala eta aian ixen da atzoko egune.

2. Familia eta harremanak

2.1. Bittorren kezkak literatura sari bat ematerakoan

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxea, Juan Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elxpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Erref**: MUG-003/003
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kultura » Idaztea
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Bilboko Iruñitza; Kafetegiaaren literatura sariketan epaimahiko egoten ziren Bittor, Gereñitza eta bera. Behin kezkatuta

agertu zen saria euren irizkide bati eman behar ziotelako, nahiz eta merezi izan. Garbi ageri zen haren zintzotasuna.

Transkripzioa

Beste ikuspegi bat, Bitorrrena, izan zan guk urteetan, Bilbon, Iruña kafetegiak antolatu izan ditu, ba, literatur sariketak eta, eta epaimahaian egoten giñen Xabier Gereño, bera eta neu eta holan. Horrek zirenez arteko belaunaldikoak, ba, orduan, ta ni orduan gazteau, ba, konsulta batzuk eta, era batekoak behintzet, egiten eustezan eurek, ezta? Eta behin hor, larogeta lau, bost, sei... hor urteetan, diñost Bitorrek: "Guk, Goiko, honexeri emon beharko dotsegu sarie, ba, hau kidea da ta". Kidea orduan zan ideologikoa. Eta "Ba! arduretute nau, arduretute nau". Ze Bitor ez zan ez saltzeko ez erosteko produktua, Bitor Bitor zan, ezta? Eta kezka eukan berak. Eta halango baten esan neutsen: "Bitor, baiña nasai, ze danok zuk diñozun obra horren alde gauz, orduen ez deukozu... ze bat datoz, zure kidetasuna, gure bion kidetasuna eta horrena eta sarirako onena dana bat datoz eta". Eta "Bake galanta emon dostezu erantzunegaz". Ezta? Zer erakusten zan? Berbako personea zan, eta, orduan, ha edozeren ganetik berak esaneko edo emoneko berbea ta kidetasunari eusteko, ba, prest egoan, baina zintzotasunaren kontra ez badoa.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Jausi ostein, ipurdikoa (MUG-001/005)

Umetan behin jausi egin zen etxe aurrean, eta aitak ipurdian jo zuen.

2. Laukarizko eskola (MUG-001/006)

Eskolan maisua izan zuten. Abade izateko asmoa izan zuen, baina azkenean maisua izan zen. Ez zen batere ona, asko jotzen zituen umeak. Neskek maistra izan zuten. Hala ere, askotan batera olgetan zuten. Laukarizko eskola zelakoa zen eta zelan janzten ziren azaltzen du.

3. Eskolan ikasitakoak (MUG-001/007)

Eskolako kontzeptuak ikasteaz gain, dotrina ere ikasi zuten. Eskolan euskaraz egiten zuten. 10 urte ingururekin utzi zuen.

4. Behiak jagoten eta esnea banatzen (MUG-001/008)

Behiekin labrantzan aritzen zen aitarekin. Behiak jagon egiten zituen. Esnea saldu egiten zuten, Zabalondon. Astoz eramaten zuen esnea.

5. Petrolioa erosten zuten Mungian, argia lortzeko (MUG-001/010)

Elektrizitaterik ez zeukaten. Petrolioa erosten zuten Mungian, argia izateko. Mungia ez zela hain handia dio.

6. Gerra garaian Gorbeian (MUG-001/012)

Gerra garaian Gorbeian ere egon zen luzaro. Beti arriskuan egoten ziren, tiroaren beldurrez.

7. Eusko gudaria izan zen (MUG-001/013)

Gerran gudaria izan zen. "Eusko gudariak" kantaren zati bat abesten du. Roteta izan zen tenientea. Santurtzin kuartela zeukaten.

8. Soinua jotzen zuen, beste baten ordezk (MUG-001/016)

Asuko (Txorierri) erromerian dantzan egiten zuten. Soinua jotzen zuen berak. Beste bat zegoen bera baino hobea, eta ordezk erabiltzen zuen Josu.

9. Beharrera bizikletaz (MUG-001/018)

Beharrera oinez joaten zen lehenengo eta gero bizikletaz. Bizikleta astuna zela dio. Eguerdian bazkaria eramaten zion emazteak.

10. Gaixotutakoan, mantzanilla (MUG-001/020)

Gaixotutakoan, ohean geratzen zen eta aita eta ama sorora joaten ziren. Mantzanilla ematen zioten; bizioak zituen. Haginetako minarentzat alkohola erabiltzen zuen. Don Juan Maria Azpiazu zen medikua.

11. Gabonetan kolinetak, egunerokoan taloa eta esnea (MUG-001/022)

Gabonetan kolinetak ematen zizkieten goxo-dendan. Esnea eta taloa asko jaten zuten. Errotara artoa eramaten zuen, irina egiteko. Gabon Zaharretan izaten zen bere eguna.

12. Sagarrak ezkutatu eta arratoiek jan (MUG-001/023)

Soroan behiekin eta aitzurrarekin ibiltzen zen. Arboletatik frutak hartzen ibiltzen ziren. Sagarrak handienak hartu zituzten arrebak eta biek behin, eta belarretan ezkutatu zituzten, baina arratoiek jan zizkieten.

13. Bilboko azokara amarekin saltzera (MUG-001/024)

Txikia zenean, amarekin joaten zen Bilbora merkatura saltzera, astoarekin. Zabalondotik Santo Domingora eta handik behera jaisten ziren. Zabalondora esnea egunero eramaten zuen. Txakur handia eta txakur txikerra kobrezko txanponak ziren. Goizeko hiruetan jaikita joaten ziren merkatura.

14. Laukarizeko jaietan, zahagia gazteentzat eta gonbidatuak etxeetan (MUG-001/026)

Larrondoko jaiak abuztuan izaten dira. Laukarizen Santiago jaiak izaten dira. Erromeria egiten zuten. Zahagia erosten zuten eta gazteen artean edaten zuten. Gonbidatuak izaten zituzten etxean, familiakoak.

15. Etxean egindako pilotekin jolasean (MUG-001/028)

Pilotan ibiltzen ziren. Etxean egiten zituzten.

16. Karramarroak harrapatzen amuarekin (MUG-001/030)

Amua bota eta karramarroak ateratzen zituzten. Gozoak izaten direla dio. Arrain asko egoten zen.

17. Bittor mindu egin zen berak idatzitako artikulu bat zela eta (MUG-003/002)

Alfontso Irigoienek gorazarre artikulu bat idatzi zuen berak 1996an. 1997an Durangoko Azokan topo egin zuten, Bittorri argizaiola eman ziotenean. Bittorrek esan zion artikulua irakurri zuenean ez zuela lorik egin. Ez zion zergatik esaten. Garbi dago zerbaitek mindu zuela. Hortik ondorioztatu zuen aurreko belaunaldian bazirela lehia edo oker ulertu batzuk gugana heldu ez direnak. Hatxea eta euskara batua izan ziren eztabaidagai garrantzak gure gazte denboran. Gerra horiek hoztuak eta ahaztuak daude dagoeneko. Beste batzuk daude gaur indarrean. Gazte baten gaizki idatzitako testuaz. Aldi bakoitzean geu izaten gara ardatz eta akats.

18. 'Agorrezia', Bittorrek ateratako sagar-mota (MUG-003/004)

Bittor Euskaltzaindira Bilbora joaten zenean, solasaldi luzeak izaten zituen hango langileekin. Ezaguna da Bittorren beste alderdi bat: fruta arbolen landaketa, sagarrena bereziki. Behin Bittorrek menduak eman zizkion Juan Luisi, txukun-txukun atonduta, eta horien artean berak ateratakoa, 'Agorrezia' izenez bataiatu zuena. Zelan sortu zuen kontatu zion. Handi eginda eta frutua ematen daude egun, Kanarietan esaterako.

19. Bittorrek izan du eta badu errekonozimendua (MUG-003/005)

Bittor baztertuta egon dela esatea gehiegi iruditzen zaio. Garai batean gauza guztien gainean egiten zuten berba: literatura, fonologia... Gero unibertsitatea etorri zen, eta harekin batera espezializazioa. Orain ez dugu horrela berba egiten. Bittor buruargia zen, baina unibertsitateak ematen duen marko teorikoa falta zitzaion. Hala ere, denborak gauza baten behintzat arrazoiak eman dio. Euskara bere barrutik aztertu eta irakatsi behar dela defendatzen zuen, bere edukietatik, eta ez tresna huts moduan. Bittorren figura handi eginez doa. Torrealdairen liburuan han dago argazki eta guzti. Euskera agerkarian ere bai, Villasantek defendatu zuen Refranes y Sentencias-i buruzko bere artikulua. Mendebaldean omenaldia egin zitzaion, Argizaiola jaso du... Bittorri errekonozitu zaio bere ekarpena, neurri batean behintzat.

20. Urte pare bat eskolan (MUG-005/003)

Izena esaterakoan, Jose "Eztabilondo" dela dio. Urte pare bat egin zituen eskolan. Maisua zelakoa zen kontatzen du.

21. Umetako eta gaztetako lanak (MUG-005/010)

Arazoak izan ditu euskaraz egitearren. Astelehenetik zapatara soroan beharrean ibiltzen zen. Eguna argitzearekin batera jaikitzen zen. Pinua eta gaztaina asko zegoela dio. Bost pezeta irabazten zuen orduko, basoan lan eginda.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com